


ASTE SANTUKO

TXIKI-JOLAS

KANPUSA



ANTOLATZAILEA



Getxo
IGERIKETA

LAGUNTZAILEAK



Kantxa
kirol moda

Nor gara?

Getxo Igeriketa Waterpolo Getxo udalerriko Igeriketa eta waterpolo taldea da, irabazi asmorik gabeko elkarte gisa eratu dena autofinantzatu eta profesionalizatu ahal izateko asmoz.

2011. urtean hasi ginen Getxoko udal instalazioetan 4-12 urte bitarteko haurrentzat kanpusak antolatzen. Horrez gain, 2014. urtetik Getxo Kirolak entitateko sorosleen zerbitzua kudeatzen dugu.

Zerk bereizten gaitu beste kanpus batzuen artean?

Gure langileek kualifikazio bikoitza izango dute zuen seme-alabekin lan egiteko; izan ere, begirale titulua izateaz gain, sorosle titulua ere izango dute, edozein egoeratan behar izanez gero. Haurren ikaskuntza eta gaitasun sozialak eta pertsonalak sustatuko dira. Haurrek beharrezko tresnak eskuratzeari garrantzi gehiago emango zaio, hain zuzen ere gai izan daitezen eguneroko egoerei aurre egin eta inguruan dituzten fenomenoak aztertu eta ulertzeko.

Ikasteko modu nagusietako bat jolastea denez eguneroko errutinaren erdia baino gehiago jolasean emango dugu; bai jolas gidatuan eta baita jolas librean. Horretarako prestatzen ari ditugu hainbat gauza: Ginkanak, magia, esku lanak, herri Kirolak...umeek primeran pasa dezaten.

Kanpusa non/noiz antolatuko da?

Gure kanpusa **Fadurako** udal kiroldegian antolatuko dugu aste santuan umeek dauzkaten opor egutan; martxoaren 26, 27 eta 28-an eta apirilak 3, 4 5 eta 6.

Norentzat:

4-12 urte arteko haurrak (3 urte izan eta aurretik 4 beteko dituzten haurrek ere parte hartu ahalko dute).

Jarduerak:

- 08:30-09:30 Haurrak bertan uztea
- 09:30-11:00 **Igerilekuan** jolas gidatuak
- 11:00-11:30 Hamaiketako
- 11:30-13:30 **Jolas gidatuak eta jolas libreak** (Egun bakoitzak jarduera desberdinak izango ditu)
- 13:30-14:30 Haurrak jasotzea

Prezioak:

- Egun bat 20€
- Bi asteak 100€ (7 egun)

Harremanetarako:

Urko Arregi
www.getxiow.com
E-maila: urkogiw@gmail.com
Telefonoa: 651703887

